

2017 Urteko memoria



José Miguel de **Barandiaran**
Fundazioa • Fundación





“Europa, Barandiaran eta baloreak” liburua, kalean

Hamaika jarduera ezberdin antolatatu ziren 2016an, Jose Miguel de Barandiaranen heriotzaren 25. urteurrenaren harira. Besteak beste, iazko udazkenean mahai-inguru zikloa antolatu zen Euskal Herriko hiriburu nagusienetan: Gasteizen, Bilbon, Donostian, Iruñean eta Baionan, hurre-

nez hurren. 2016ko abenduaren 21ean, berriz, ekitaldi instituzionala egin zen Ataungo Sara etxean. Hori dela eta, Barandiaranen heriotzaren urteurreneko ekitaldietan landu ziren gaiak eta edukiak biltzeko xedearekin, eta urteurreneko jarduerak isteko helburuarekin, “Europa, Barandiaran eta baloreak”

liburua argitaratu da 2017ko udaberrian. Zabalkundearen bidean aurrera egiteko nahiarekin, Fundazioak doan ipini du bere webgunean, eta nahi duen ororentzat dago eskuragarri PDF formatuan. Era berean, liburua papereko euskarrian eskuratzeko aukera dago, soilik bidalketa gastuak ordainduta, hau da, 9 euro.

Etorkizuneko belaunaldiak elikatzeko materiala, prest

Fundazioko patrono Jexux Aizpuruaren ekimena izan da ikastetxeetara zuzendutako materiala sortzea. Helburua da LH 5-6 mailetakako ikasleei Jose Miguel Barandiaranen bizimodua aurkeztea, eta haren bizitzaren eta ezagutzaren berri ikasleei ematea. Beraz, ikastetxeetako materialarekin ikasleek Barandiaran gertutik ezagutzeko parada izanen dute. Materiala Aizpuruak prestatu badu ere, Ikastolen Elkarteko Abel Ariznabarretak egokitu du. Ikasturte berri honetan, asmoa da materiala lantzen hastea Ataungo Jose Miguel Barandiaran ikastetxean. Aurrerago, eta poliki-poliki, Euskal Herriko ikastetxeetara zabaltzea aurreikusten da.





Eusko Folklorearen Urtekaria, norabide berrian

Aldaketaren bidean dago Eusko Folklorearen Urtekaria. Hala, 51. alea izango da garai berriaren isla. Haize freskoa eman nahi izan zaio aldizkariari, egun bolo-bolo dabil-tzan gaiak eta hausnarketak bilduko ditu urtekariak, XXI. mendeko gizartearen nahiekin bat eginez. 2016tik Abel Ariznabarretak zuzentzen du argitalpe-na, eta berarekin batera dabil-tza Patxi Juaristi, Ixone Fernandez de Labastida eta Anuntxi Arana. Fundazioak idazka-ritza teknikoak eskaini dio.

51. alea Bi atal nagusi izango ditu aldiz-kariak. Bata, gai nagusia izango da: argia ikusi berri duen urtekariak “Euskal kul-tura eta Kulturgintza” ditu hizpide, eta gai honekin lotura zuzena duten artiku-luak idatzi dituzte Ibai Iztuetak, Ane Larrinagak eta Eneko Bidegainek, hurre-nez hurren. Hirurak, gainera, euskaraz dira. Bigarrena, ekarpen libreak dira, hots, era guztietako gaiak lantzen dira, eta egileak Urkiri Salaberria, Maialen Moreno, Montse Ocio eta Ricardo Gurbindo dira.

Garai berriak iritsi badira ere, urteka-riak ez du eten nahi izan orain arteko bidea, eta, horregatik, orain arte argital-penean landu diren gaiek ere izan dute beren txokoa.

Euskarari leku gehiago eman zaio aldizkarian. Izan ere, orain arte gaztela-niazko gaiak izan dira nagusi, eta euskal hizkuntzaren presentzia nahiko mugatua

51. aleko gaiak

“Europa, Barandiaran eta baloreak”; Jose Miguel Barandiaranen heriotzaren 25. Urteurrena. Argitxu Camus Etxekopar.

Euskal Kultura eta kulturgintza

Euskal hizkuntza eta kultura. Ibai Iztueta Azurmendi.

Euskararen aldeko mugimenduaren bilakaera. Interpretaziorako proposamen bat. Ane Larrinaga Renteria.

Euskal kulturaren aitortza Ipar Euskal Herrian: txanponaren bi aldeak. Eneko Bidegain Aire.

Ekarpenak

Cultura vs cultural. Izaki Gizaki bihurtzen denean ala Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai. Urkiri Salaberria Gracia.

XX. mende hasierako toberetako bertso-sortak. Maialen Moreno Zubeldia.

Las plazas de toros en Álava. Montse Ocio Vallejo.

El garapito y los garapiteros. Ricardo Gurbindo Gil.

zen urtekarian. Lurraldekotasuna ere zaindu da, Euskal Herriko herrialde ezberdinetatik lanak jasoz.

52. alea Urtekariak urtekari izatea du xede, hau da, urte bakoitzean aldizkari bat argitaratzea aurreikusten da. Hori dela eta, 52. alea dagoeneko abian da, eta “Identitatea” izango du aztergai atal nagusian. Aurreko zenbakian bezala, ekarpen libreak ere jasoko dira, eta amaierako atal berezi bat izango du, “Aitortza” izenburupean: besteak beste, Karmele Goñiren In Memoriam bat idat-ziko da, Selma Huxleyren elkarrizketa bat bilduko da eta Pilar Barandiaranen lanaren aitortza egiteko artikulua bat idat-ziko da, 2018ko urtarilaren 1ean ospatu-ko baita haren heriotzaren 10. urteurrena.



Garai berria ere azalean islatzen da.



Barandiaran Beka, pausoz pauso

2016ko deialdia

Hainbat urtetako isilunearen ostean, 2016an deialdi berria egiteko aukera izan zuen Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak. Etnografiari bideratua egon zen iazko edizioa, eta bi gaztek osatzen dute lan-taldea: Josu Ozaitak eta Edurne Urrestarazuk, hain zuzen. “Ardoaren sare-e(t)nologia Arabar Errioxan: Materialtasuna, Agentzia eta Ondarea” proiektua bideratzen ari dira. 2017ko uztailean lehengo txostena aurkeztu zuten.

Iragan udaran, Arabako Errioxa ardoaren inguruan egiten ari diren ikerketaren harira, 10 egunez Bordelen (Frantzia) ibili ziren landa lana egiten. Lehenik eta behin, hiri-buruko “Ardoaren hiria” museo ireki berrian izan ziren, munduko ardogintza, historia, lotura, harremanak, mundu ikuskerak... inguruan blaitzen. Zazpi orduz egon ziren bertan, baina “denbora gehiago ere eskatzen duen museo gomendagarria da, modernoa eta dinamikoa”, esan ziguten gazteek.

Ondorengo egunetan Bordeleko eskualdetxo ezberdinetan ibili ziren, bertako mahastiak sentitu, historia eta lan egiteko moduak ezagutu, eta upategietako jabe eta langileekin berriketan arituz. Esperientzia desberdinak, istorio anitzak eta diskurtso ugari bildu zituzten bertan, Araban jarraitu duten ikerketaren osagarri.

Ikertzaile gazteak eta Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa harremanetan egon dira, beren proiektuaren nondik norakoak gertutik jarraitu ahal izateko. Hala, fundazioak bere Facebook orrian argitaratu ditu 2016ko bekadunen kronikak.



2017ko deialdia

Arkeologia gaiak lantzea du oinarri. Deialdi berri honetan, gainera, gaia zehaztea erabaki da, ahalik eta etekin handiagoa eskuratzeko helburuarekin. On Jose Miguel Barandiaranek urte asko eman zituen arkeologia lantzen, eta haren itzala oso luzea da Euskal Herriko indusketa arkeologikoen munduan. Hori dela eta, aurtengo deialdiak helburu garbi bat izango du. On Jose Miguel Barandiaranek abian jarri zituen ikerketa lanak egun nola dauden aztertzea, bitarte honetan egin diren indusketek eman dituzten fruituak ikertzea, hala nola Santimamiñe, Lezetxiki edo Urtiaga, aztarnategi batzuk aipatzearen.

Helburua izango da digitalizatutako informazio horren guztiaren azterketa kritikoa, Fundazioak oraindik argitaratu gabe dituen datuak publiko orokorrari nahiz egungo arkeologoei itzultzeko. Azken emaitza izango da testu idatzia, non kontestualizatuko diren aztarnategi horretan egindako aurkikuntzak ebakidura estratigrafikoekin, argazkiekin, oinplanoekin eta indusketa bukatu ondoren, lekuaren inguruan eginiko gainerako ekarpen eta analisiekin.

Jatorrizko irudi eta testuetara jotzeko, Fundazioaren web orrialdean esteka batzuk ipintzea ere aurreikusia dago. Barandiaranek burututako egunerokotasuna sendotuta geldituko da horrela, eta bere lanetatik oraindik erauzi daitekeen informazio guztia gizarteratuko da, XXI. mendeko formatu batean, Oroimen Digitalaren era batez, hain zuzen ere.

Horiek horrela, Barandiaran Bekaren epai-mahaiak, 2017ko azaroaren 28an egindako batzarraren ostean, Alvaro Arrizabalagak eta Maria Jose Iriartek osatzen duen lan-taldeari 2017ko beka ematea erabaki zuen. Euren proiektuak Lezetxikiko (Arrasate) aztarnategiaren iragana eta oraina aztertzea du xede, urte hauetan guztietan izan duen bilakaera aztertuz.



Animazio irudiak sortzen

On Jose Miguel de Barandiaranen bizitzaren eta ibilbidearen zabalkundearen bidean, Fundazioak animazio irudiak sortuko ditu Bidean ekoiztetxearekin elkarlanean. Minutu bateko 6 bideo izango dira, eta bakoitzak Jose Miguel Barandiaranen bizitzaren pasarte baten edo gertakari baten berri emango du.

Helburua da haur, gazte zein helduei zuzentzea, modu erakargarri batean. Aurreikusita dago, gainera, ikastetxeetarako prestatu den materialaren gehigarri izatea. Prozesua Jexux Aizpuruarekin elkarlanean bideratu da, baita Abel Ariznabarretarekin ere.

Andres Espinoza eta Leire Mitxelena dira ekoizleak. Biek ala biek eskarmen-

tua dute halako proiektuak gauzatzeko, Euskomedia Fundazioan aritu baitira era honetako lanak egiten. Bideoak 2018rako prest izango direla aurreikusten dute. Aldi berean, animazio guztiak biltzeko webgune bat sortzea aurreikusten da, eta fundazioak bere esku dituen sare sozialen bidez hedatuko dira ikus-entzunezkoak.

Dokumentalen aroa

Azkenaldi honetan, dokumentalen aroan bizi garela dirudi. Horren isla da, esaterako, Fundazioarekin harremanetan jarri diren ekoiztetxeak, material eske. Aurten, adibidez, bi proiektutan hartuko du parte Fundazioak, zeharka bada ere.

Rec Grabaketa Estudioak “IRA-26” dokumentala ekoizten ari da, Elbira Zipitriaren bizitzaren inguruan. Fundazioari argazkiak eta eskutitzak eskatu dizkio, dokumentalean erabiltzeko.

Altube Filmak “Arizmendarrieta, el hombre cooperativo” ikus-entzunezkoa ekoizten ari da, eta, hori dela eta, Euskadiko Filmmategian dauden Fundazioko bideoak erabiltzeko baimena eskatu du.





Bilerak

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak urteko lehen patronatu bilera egin zuen 2017ko martxoaren 23an, Arabako Foru Aldundian. Segidakoak gerturatu ziren bilerara: Igone Martinez Luna and. (Arabako kultura diputatua) Fernando Perez jn. (Nafarroako Kultura zuzendaria), Asier Rodriguez jn. (Ataungo alkatea), Bingen Zupiria jn. (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua), Maria Jose Telleria (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria), Karmele Aierbe and. (Ataungo Kultura zinegotzia), Josemari Velez de Mendizabal jn. (Eusko Ikaskuntza. Fundazioko lehendakaria), Arantza Cuesta (Eusko Ikaskuntza. Fundazioko idazkaria), Susana Irigaray (Eusko Ikaskuntza), Jexux Aizpurua (Eusko Ikaskuntza). Haiekin batera, Zuriñe Velez de Mendizabal and. ere egon zen, Fundazioaren idazkari teknikoa.

2017ko bigarren patronatu bilera Ataungo Sara Etxean egin zen, urriaren 26an. Hitzorduan bi aurkezpen nagusi egin ziren: batetik, Eusko Folklore Urtekari zaharberritua eta, bestetik, 2018ko aurrekontuen proiektua.

Miguel de Barandiaran Fundazioko presidente Josemari Velez de Mendizabal; Eusko Ikaskuntzako Arantza Cuesta, Jexux Aizpurua eta Susana Irigarai; Arabako Foru Aldundiko Kultura diputatua Igone Martinez Luna; Ataungo alkate eta kultura zinegotzi Asier Rodriguez eta Karmele Goñi; Bizkaiko kultura zuzendari Andoni Iturbe; Eusko Jaurlaritzako Imanol Agote; eta Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura zuzendari Marijose

Telleria. Nafarroako Gobernuaren ize-nean Susana Irigarai egon zen.

Bestelako bilerak: Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko presidente eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza politika eta kultura sailburu Bingen Zupiria jauna Fundazioaren bulego nagusian elkartu ziren 2017ko maiatzaren 2an, besteak beste, 2017ko Barandiaran Bekaren inguruan hitz egiteko.



Ordezkaritza zabala

Urriaren 26an egin zen bileran segidako kideek parte hartu zuten: Jose



Elkarlanean, Barandiaranen lana hedatuz

Urtero lege, aurtengo Gau ibilaldi mitologikoa uztailaren 15ean izan zen, eta VI. edizioa izan zena, “erabat arrakastatsua” izan zen, Jentilbaratza Kultur Elkarteko lagunek adierazi bezala. Izan ere, ekimenak “ikusle eta bisitari andana” jaso zuen: 1.500 lagunetik gora elkartu ziren, eta bi taldetan banatuta ibili ziren Agauntza errekararen ondo-ondotik doan herri bidean zehar. Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak, antolakuntzarekin elkarlanean, Sara etxeko leihoak zabaldu zituen, eta Barandiaranen liburutegia ikusteko aukera izan zuten bertaratu zirenak.



On Jose Migel Barandiaran, Sara etxean.

Era berean, ikusleek erraldoi Jentila, lamiak, Barandiaran, Eguren eta Aranzadi lehen indusketak Aralarren egiteko elkartu ziren garaia, Zegamarren eta Ataundarren arteko tirabiren inguruko berri eta beste hainbat gertakizun eta ipuin bizi izateko aukera izan zuten.

Gauaren iluntasunean zuziak eta kri-seiluak hartuta, sorginen eta lamien erreinuan sartu ziren gerturatu zirenak, elkarreko lagunek azaldu bezala.

Guztira zazpi antzerkitxo eta ikuskitun desberdinez osatutako ibilaldia “liluragarria” izan zen, bertaratutako ikusleen gozamenerako.





Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa

945 14 30 66 - gasteiz@barandiaranfundazioa.eus

www.barandiaranfundazioa.eus